

Bakoitza bere itzalean

Euskaldunon Egunkaria, 1995-08-29: 2.

Ez zuen uste familian lehen hilko zena ama bera izango zenik, anaiak baino askoz gazteago haitzen. Ricardo hil zen gero (1953) eta osaba Pio laster (1956). Lehen lerroan sentitu zen Julio. Familiako inor ez zen bat-batean hil, berea kosta zitzaion bakoitzari. Intelektualki garestien irten zitzaiona Ricardo izan zen, bere 80 urte helduekin emazteaz pentsatu baitzuen lehenbizi. Konturatu zen apaizik pasatzen ez zen etxe hartara parrokoa hasi zela agertzen, eta euskaldunen artean sinesgabeena zen ber-berak (emazteari gustua ematearren) dei egin zion, eta herrian. Beran, ezinezko zela uste zutena ikusi zuten. Madrilen zegoen Julio herritaratu zenean, osabak hitzik gabeko "ikusten duk..." aitorketa egin zion, eta ilobak Lucrezioren poema bat irakurri zion. Gero, oso gaixo zegoen beste osaba, Pio, behar zuen babestu Madrilen!, eta Juliok abian hilobia erosi zuen hilerri zibilean, eta hala. Hemingway, Cela, Perez Herrero eta beste lagunek gorpua kotxera jeitsi zutenean, Julio berak hartu zuen segizioaren burua hilerri zibilerantz. Bidali zion gero Pio anaiari Mexikora mezu grabea, eta euskaraz ("porque me pareció más íntimo y expresivo"): "Gaur hil da". Eta bere 42 urteekin heriotzaren zain geratu zen urteetan, asko "Itzean" pasiak. Berako herriaz inguraturik eta maiteen zituen bere anai Pio eta iloben itzalean. Bere ideia-aren arabera, osaba Piorekin egon behar lukeela, zioen, "baina Berako hilerrira joatea gustatuko litzaidake. Bidasoaren aurrean, nire aiton-amonekin eta osaba Ricardorekin". Halaxe.